


Euskal AEn heriotzak %6,7 gehitu ziren 2015ean

Jaiotzak, 2.658 gutxiago heriotzak baino.

2015ean 21.509 pertsona hil ziren Euskal AEn, 2014an baino %6,7 gehiago, Eustaten datuen arabera. 10.764 gizon eta 10.745 emakume hil ziren. Heriotzarik gehien (2.288) urtarrean; gutxien (1.560) irailean.

2015ean 100 urtetik gora hildako 344 pertsonen artean, %81,7 emakumeak. Ehun urtetik gora hildakoen kopuruak gora egin du azken urteotan; goia, 2015ean.

1. grafikoa: ehun urtetik gorako pertsonen heriotzak, sexuaren arabera, 1996-2015



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Hildako emakumeen batez besteko adina, 83,2 urte; gizonena 76,6


2015ean zehar hildakoen batez besteko adina, 79,9 urte; 2005ean, 76,8; 3,1eko gehikuntza azken hamarraldian.

Hiltzean, gizonen batez besteko adina 76,6 urte; emakumeena 83,2. 2005ean, 73 eta 81,1. Azken 10 urteetan gizonen bizitza 3,6 urtez luzatu da batez beste, eta emakumeena 2,1ez.

Jaiotzak, 2.658 gutxiago heriotzak baino. Saldo negatiboak Bizkaian eta Gipuzkoan, 2.479 eta 571 biztanle gutxiago; Araban 392 gehiago.

Urtebetetik beherako 51 haur hil ziren Euskal AEn. Bizitzako lehen 28 egunetan 32 haur hil ziren; 7 lehen 24 orduetan; 11 lehen astean. Urtebetetik beherakoen artean, neskatoak %51.

2. grafikoa: heriotzak kausa eta sexuaren arabera (%). 2005 eta 2015



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Heriotzen %56,6 tumoreek eta zirkulazio aparatuko gaixotasunek eraginda

Tumoreek heriotzen %29,7 (6.379) eragin zituzten 2015ean; zirkulazio-aparatuko gaixotasunek %26,9 (5.788), eta hirugarren, urrunago bada ere, arnas aparatuko gaixotasunek %9,9 (2.119). Gaixotasun garrantzitsuenen hiru talde hauen prebalentzia aldatuz joan da azken hamarraldian: tumoreek eragindakoak %16,8 gehitu; kardiobaskularrek %1,7 gutxitu eta arnasbideetakoak %4,3.

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

Halaber, adinaren arabera bada alderik. Urtebetetik beherakoen artean, heriotzarik gehien jaiotza-inguruko gaixotasunek eta malformazio kongenitoei eragin zituzten; 40 urte arte, heriotza-kausa nagusiak kanpokoak izan ziren, tartean istripuak eta buru-hiltzeak; 40 urtetik 80 urtera, tumoreak, eta 80 urtetik aurrera, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak.

1. taula: Heriotzak sexuaren arabera, kausari jarraiki. 2015

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	Kop.	%	Kop.	%
Kausa guztiak	10.764		10.745	
Gaixotasun infektioso eta parasitarioak	179	1,7	185	1,7
Tumoreak	3.843	35,7	2.536	23,6
Guruin endokinoetako, elikaduraren eta metabolismoaren gaixotasunak	288	2,7	379	3,5
Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	451	4,2	912	8,5
Nerbio-sistemako gaixotasunak	591	5,5	871	8,1
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	2.708	25,2	3.080	28,7
Amas sistemako gaixotasunak	1.151	10,7	968	9,0
Txegoste-sistemako gaixotasunak	480	4,5	496	4,6
Sistema genitourinarioko gaixotasunak	222	2,1	301	2,8
Zantzu, zeinu eta aurkikuntza anormalklinikoak eta laborategikoak	212	2,0	465	4,3
Kanpoko heriotza-arrazoiak	450	4,2	227	2,1
Beste batzuk	189	1,8	325	3,0

Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
 Euskal AEko heriotzen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago
 Euskal AEko heriotzen estatistikari buruzko datu-bankua